

OHAR GARRANTZITSUA:

Ataza honetako ikaslearen orriak aldizkari txiki baten formatuan dituzu. Aldizkari-itxura eman nahi badiozu, kopiak DIN A3 tamainan ateratu ditzaitezue, eta erditik tolestu, ondoko irudietan bezala:

Lehenengo DIN A3a (kanpoko):

AZALA ETA KONTRAZALA

2. ETA 7. ORRIALDEAK

08 ekarpenak

korrika

Egin klik KORRIKARI! A1

AIMAR KARRIKAREN BERTSOAK

ZABERAREN KOMIKIA

21 KORRIKA

korrika

Gaur arto, 20 KORRIKA egin dira lehenengo 1980an, Oñati eta Bilbao arteanakoa 2017an, Oñati eta Bilbo artean. Hegoaldeko herrietan, lehenengo "klix" asko gertatu dira, eta horri hasieran baitzuk kontutuko ditugu.

02 21 KORRIKA

KORRIKAKo istorio bitxiak

denbora-pasak 07

LELOK OSATU

1 E T A A I U E

2 E S

3 B S U

Izan korrika laguntzailea

1. Beko...
2. Korrika...
3. Korrika...
4. Korrika...

Bigarren DIN A3a (barruko):

6. ETA 3. ORRIALDEAK

4. ETA 5. ORRIALDEAK

06 21 KORRIKA

HEBERT BERTSOAZ

"Hiru lagun" da sira lehen KORRIKA

Gore-gorriberrak korrika

KORRIKAREN parte hartze adina

Beti erabakikorra da KORRIKA

03

Gaurko gara

Berriak istorio bitxi

korrika

korrika

04 21 KORRIKA

KORRIKA istorio

Homenajea korrika-ari Korrikan

WEN ERITILLA

"Pribilegia da KORRIKA animatzen duten laguntzaileak izatea"

05

Gaurko gara

Purru hartzeak

korrika

korrika

EGIN KLIK KORRIKARI! A1

HELBURUA

Ataza honen helburuak dira ikasleak KORRIKAREN giroan murgiltzea eta parte hartzera animatzea.

OHAR GARRANTZITSUA:

Aldizkaritxoan zure ikasleekin lan egiteko testu gehiegi daudela iruditzen bazaizu, honela joka dezakezu:

- Aukeratu eskolan irakurtzeko artikulu bakoitzeko testu bat edo bi, eta horiei buruz mintzatu.
- Eskatu ikasleei gainerako testuak etxean irakurtzeko. Zalantzak eskolan argituiko dira, talde handian.
- Testu guztiak irakurri ondoren, egin proposatzen diren ariketak.

PROZEDURA

A. "EGIN KLIK KORRIKARI!" ALDIZKARIA AURKEZTU

A.1 "Aimarren bertsok osatu" jolasa

- Aldizkaria banatu, azken orrialdera joko dugu (8. or.), eta bertsolaritza eta bertsolariez egoki deritzegun azalpenak eman eta Aimar Karrika aurkeztuko dugu.

Aimar Karrika (Auritz, 1988).

Gaur egun, Zuberoa, Lapurdi eta Nafarroa Behereko "Bertsolarien Lagunak" bertso-elkarterako dihardu lanean, irakasle. 18 urte bete zituenetik hartzen du parte Nafarroako Bertsolari Txapelketan. Azken hiru edizioetan, finalera iritsi da. 2017an hartu zuen parte lehen aldiz Euskal Herriko Bertso Txapelketa Nagusian.

- "Aimarren bertsoak 2" bideoa lagun, Aimarrek 21. KORRIKari jarritako bertsoak entzun eta irakurriko ditugu, eta, ondoren, ikasleei zer ulertu duten galdetuko diegu. Irakasleak egoki deritzen azalpenak emango ditu.

A.2. Zaldieroaren komikia

- Zaldieroa komikigilea aurkeztu ondoren, aldizkariko komikia irakurri (8. orrialdean hau ere) eta ulertu duten, gustatu zaien... komentatuko dugu (KORRIKAre hasiera irudikatzeko, komikigileak Indiana Jonesen film bat dakar gogora).

Zaldieroa komikilaria

Patxi Huarte Larraburu, Zaldieroa (Faltzes, Nafarroa Garaia, 1966ko urtarrilaren 14a), euskal komikigilea da. Gaur egun, Berria egunkarian, *De rerum natura* komiki-zintak egiten ditu, eta kolaborazioak egin izan ditu *Aizu!*, *Nabarra*, *Bertsolari*, *Xabiroi* eta Karrikiri elkartearen *Karrika* aldizkarietan. Deia egunkariko *Ortzadar* gehigarrian ere argitaratzen du.

B. KORRIKAKO ISTORIO BITXIAK

B.1. Istorioak irakurri eta elkarri kontatu

- KORRIKako istorio bitxiak irakurriko dituzte, eta ulertzen ez dutena azpimarratzeko esango diegu (aldizkariaren 2.-4. or.).
- Talde handian, zalantzak argituko ditugu.
- Solasalditxo egingo dugu: zein istorio gustatu zaizue gehien? Zeinek harritu zaituzte gehien? Ezagutzen al duzue horrelako istorio gehiago?
- Bakarka, aldizkaritxoan proposatzen zaien ariketa egingo dute. Zuzenketa, talde handian egingo dugu (aldizkariaren 4. or.).

ERANTZUNAK:

1. Rikardo Arregik; 2. 1982ko maiatzaren 30ean; 3. Bidean galdu zelako; 4. 91 urte; 5. Iparraldeko hedabide batek; 6. Ibardin mendatetik; 7. Udaberrian; 8. Arabako Aldundiak.

B.2. KORRIKako istorioen lehiaketa

- "Neure KORRIKako istorioa" orria banatu ondoren (irakaslearen orrietan, 4. or.), istorio-lehiaketa aurkeztu, eta ikasleak parte hartzera animatuko ditugu.

Oharra: lehiaketan KORRIKako bizipenak kontatu behar direnez, ariketa hau KORRIKA igaro ondoko egunetarako utz dezakegu, edo, nahi izanez gero, aurreko edizioetako bizipenak idatz ditzakegu.

C. KORRIKAN PARTE HARTZEKO MODUAK

- "Hamaika modu KORRIKAN parte hartzeko" artikuluan, ikasleek lau lagunen bizipenak irakurri eta proposatzen den ariketa egingo dute (aldizkariaren 5.-6. or.).

ERANTZUNAK:

1. Amaiak / zaio. EGIA; 2. hartzera. EGIA; 3. denetik. EGIA; 4. zen. GEZURRA; 5. Auritzera. GEZURRA; 6. Olatzek. EGIA; 7. dela. EGIA; 8. askorik. GEZURRA.

- Solasalditxoa egingo dugu: zein lagunekin identifikatu zara gehien? Zuk nola bizi izan duzu KORRIKA?
- Hiriko, herriko edo auzoko KORRIKA -egitarauaren berri eman, eta parte hartzera animatuko ditugu: prestaketan guri edo KORRIKA batzordekoei laguntzeko (herria apaintzen, materiala saltzen, txandaren bat egiten...) edo gelakoekin planen bat egiteko (ekitaldiren batean parte hartzeko, herri-bazkarira elkarrekin joateko, euskaltegiaren kilometroan korrika egitera joateko, KORRIKA hasiera edo amaierara joateko...).

D. DENBORA-PASAK

- Denbora-pasak egingo dituzte (aldizkariaren 7. or.).

ERANTZUNAK:

1. Leloa: "Euskara zeurea" (5. KORRIKA)

Hitzak: elurra, aulkia, lurra, erlea, hartza, ahate.

2. Leloa: "Heldu!" (15. KORRIKA)

Hitzak : lehoia, igela, iturria.

3. Leloa: "BatZuk" (20. KORRIKA)

Hitzak : udarea, gezia, prakak.



“Neure KORRIKAKo istorioa” lehiaketa

Baldintzak:

- KORRIKAn bizi izandako bizipenen bat kontatu behar da, argazki baten laguntzaz: argazkia aukeratu, eta bertan ikusten dena azaltzeko lerro batzuk idatzi behar dira. Lagungarri, eman ikasleei hurrengo orrialdeko gidoia.
- Testuak argazkiekin lagun daitezke, eta maiatzaren 10a baino lehen bidali behar dira AIZU! aldizkarira: aizu@aek.eus.
- Testuekin batera, egile, euskaltegi eta irakaslearen izenak ere bidali behar dira, harremanetan jartzeko).

Sariak:

- Irabazleak KORRIKA materiala jasoko du opari, eta bere istorioa ekaineko AIZU! aldizkarian argitaratuko da.

NEURE KORRIKAKO ISTORIA

Aukeratu argazkia, eta azaldu zer ikusten den (ez duzu zertan galdera hauek guztiak eta hurrenkerara honetan erantzun):

- Noiz gertatu zen/da? Zein KORRIKAtan? Zein egunetan?
- Non? Kokatu irakurleak.
- Nor azaltzen dira argazkian?
- Zer gertatu zen? Nola sentitu zinen? Eta ingurukoak?
- Nola amaitu zen eguna?



ARGAZKIA
